



## ASTEARTEA

2017/12/12  
5. urtea, 784. zenbakia  
107.6 fm

[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

## Alex Ibañezek nagusien mailako txapela jantzi du, etxean

IV. Elolaren Oroimenezko Txapelketan lortu du garaipena, Xistera Zirkuituaren barruan // 6

Asteasun ez dute urteroko ziklo-kros proba antolatu, egutegi arazoak tarteko // 7



ITZEA URKIZU

«Hori da tristeena, egoera muturreraino eraman beharra, jaramon egin diezaguten»

## ARANTXA ERRONDOSORO ETA MARIAN ETXEBERRIA ASUNCION KLINIKAKO LANGILEAK

Bihar izango dute lehen lanuztea Asuncion Klinikako langileek soldata izoztuen eta lan baldintza «prekarioen» aurka. «Egunerokotasunean irregularitasun handiak ikusten ditugu», salatu dute. // 2-3

## Hezkuntza publikoko langile askok gaur greba egingo dute

ELA, LAB eta Steilasek deituta, Tolosaldeko Haurreskolekako hezitzaile gehienek bat egingo dute; baita ikastetxeetako langile askok ere // 3

**zozketak**

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**EH BERTSOLARI  
TXAPELKETA 2017  
FINALA**

Abenduak 17, Igandea  
11:00 • Bilbo, BECen.

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**AZKEN ITZULIA  
ANTZEZLANA**

Abenduak 15, ostirala  
20:30 • Tolosa,  
Leidor aretoan.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

# «Zerbait lortu arte ez dugu etsiko; jendea oso gogotsu dago»

**ARANTXA ERRONDOSORO  
ETA MARIAN ETXEBERRIA  
ASUNCION KLINIKAKO LANGILEAK**

«Urtetako prekarietatea» salatuz, mobilizazio hitzordu luzea iragarri zuten duela egun gutxi; bihar izango dute lehen lanuztea.

## Itzea Urkizu Arsuaga

Bukatzen ez den soka da Asuncion klinikako auziarena. Bukatzen ez dena, eta hari-muturrak nonahi dituen. Azken asteotan, TOPAren aldarriekin bat egin du, klinikako langileen mobilizazio deiak. Bihar lau orduko lanuztea egingo dute, eta abenduaren 20an nahiz urtarilaren 8an eta 9an egun osoko grebak iragarri dituzte, soldata izoztuen eta lan baldintza «prekarioen» aurka.

**Kolpea eman duzue mahaigai-nean. Zerk leherrarazi du egoera?**

**Arantxa Errondosoro.** Negoziazio mahaian negoziatzeko ezer ez zutela esan zigutenean lehertu zen egoera. Azaldu ziguten puntu askoren inguruan hitz egiteko prest zeudela, baina ezinezkoa izango zela diruaz eta orduez negoziatzea. Aldebakartasunez erabaki zuten, gure soldatei %1eko igoera aplikatzea, jakinda, 2016an KPIa %1,6koa izan zela.

**Marian Etxeberria.** Gainera, egoera horretara iritsi gara, sei-zazpi urte pasatu eta gero, pentsa.

**A.E.** 2013an soldata jaitsi nahi izan ziguten, klinikaren egoera us-tez bideragarria ez zelako. Azkenean, orde, epaileak arrazoia eman zigun. Beraz, zergatik sine-tsi behar diegu orain, soldatak igo-tzeko zailtasunak dituztela?

**Epai haren ondotik, zuzendaritza-zen jarrean aldaketarik na-baritu zenuten?**

**M.E.** Ez ziguten soldata jaitsi, baina ezta igo ere. Eta gauza bera gertatu zen beren jarrearekin ere: isiltasuna nagusi. Epaileak hori esan zuela? Bada aurrera, baina guri ezer eman gabe. Gauza bat da urte batean KPIaren igoera eskatzea, eta ez ematea. Baina negoziazioek iraun duten zazpi urte horietako KPIak bidean galdu ditugu, eta galera handiak izan ditugu.

**Lan karga eta jardunaldi luzeak eresalatu dituzue. Nolako da zuen egunerokoa klinikan?**

**M.E.** Egia esan, niri lanak ez dit

beldurrik ematen; gustura egiten dut. Baina ikusten dugu, urte osoan barrena ordu asko sartzen ditugula, eta atsedeen egunak gutxi izaten direla. Osakidetzan baino 78 ordu gehiago sartzen ditugu. Hori gorputzean pilatzen da.

**A.E.** Bai. Gustura etortzen gara, baina lan-karga handiarekin aritzen garenean, gero ez dugu zuzendaritzaren erantzunik bueltan jasotzen. Adibidez, langile askok urteak eta urteak daramatzate aldi baterako kontratuekin; egunero-kotasunean irregulartasun handiak ikusten ditugu. Legeak ez ditut aurrean, baina ez dakit zazpi-zortzi urtez behin-behineko kontratuekin aritzea zenbateraino izango den legezkoa.

**TOPA kratioen desoreka salatzen du, esanez, langile gehiagok aritu beharko luketela Asuncionen.**

**M.E.** Bai, hori nabaria da.

**A.E.** Hor ikusten da, esaterako, zergatik ari diren medikuak alde egiten. Traumatologiako zerbitzuan karga handia izaten dute, bai kontsultan, bai kirofanoan.

**M.E.** Ratioen kontua egia da: paziente asko izaten ditugu gure ardurapean, eta langile gehiago beharko lirateke.

**A.E.** Kontuan hartu behar da, Asuncion klinikak hitzarmena duela Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin. Iruditzen zaigu Osa-

sun Sailak, edo Darponek, ezin dutela beste aldera begiratu; arduraren gain hartu behar dute.

**Lau traumatologok klinika utzi dute. Ordezkatu al dituzte?**

**A.E.** Ez, ez dituzte ordezkatu. Beren arabera, oso zaila da traumatologiako espezialistak aurkitzea. Egia da beste espezializazio batzuetan mediku gehiago daudela, baina, zergatik egiten dute alde? Zerbaitengatik izango da.

**Zernolako harrera izan du zuen mobilizatzeko deiak?**

**M.E.** Azken deialdi honek oso harrera ona izan du. Orain arte jendea gehiago animatu behar izaten genuen, sokatik gehiago tira. Baina, puntu honetara iritsita, jendeak aurrera egitea erabaki du.

**Haserre dago jendea.**

**M.E.** Bai, bai.

**A.E.** Eta, beste hainbat enpresatan gertatzen den bezala, hemen ere beldurra dago; mobilizatzeak ekar ditzakeen ondorioekin pentsatzen du jende askok.

**Zenbat langile elkartzaren arizarete batzarretan?**

**M.E.** Azken batzarrean 60-70 inguru elkartu ginen, eta sekula ez ginen horrenbeste elkartu.

**Erizainak zarete biok. Mobilizazioetan bada desberdintasunik medikuen eta gainerako langileen artean?**

**M.E.** Orain arte medikuak ez dira deialdietara azaldu ere egin. Eta, orain ere, zenbat etorriko dira bada? Bi? Hiru?

**A.E.** Azken batzarrean bi etorri ziren. Dena den, kontuan izan behar da Asuncioneko mediku asko ez direla Invizako langileak.

**Zein enpresak kontratatzen ditu?**

**A.E.** Ez dakigu, egia esan.

**M.E.** Beste kontratazioaren bat dute, baina ez dakigu gehiago.

**Egunotan zuzendaritzaren erreakziorik jaso al duzue?**

**M.E.** Bai. Ohar bat banatu digute, azalduz, ez dutela ulertzen hainbeste zarata ateratzearen zergatia.

**A.E.** Badirudi egoera lasaitu nahi izan dutela.

**Izan ere, 60 langilek bi egunez jarraian greba egitea asko nabarituko da, ezta?**

**M.E.** Bai, eta hori da tristeena: egoera muturreraino eraman beharra, jaramon egin diezaguten. Oraingo, orde, mahai gainean ezin da beraiekin hitz egin. Ez

**«Beraiek badakite langile asko beldurrez egon direla, eta badakite zein botoi sakatu behar duten»**

dugu uste guk eskatzen duguna sekulakoa denik ere.

**A.E.** Oharrean esan digute, Asuncion klinikak ez duela, orain arte, itxaron-zerrendarik izan. Baina, zergatik? Langileok sekulako lan-karga izan dugulako. Itxaron-zerrendarik ez izateak ez du esan nahi egoera prekarioa ez denik.

**TOPA koordinakundeak urteak daramatza, besteak beste, Asuncion klinika kudeatzeko eredu publiko bat aldarrikatzen. Zuek bat egiten al duzue gogo horrekin?**

**M.E.** Klinika publikatzearen gaia hor dago, ez daukagu ahaztuta, baina orain langileon baldintzetan zentratuta gaude.

**A.E.** Argi dago publikazioa dela bide bakarra, ratioak eta baldintzak beste ospitaletako egoeretara parekatzeko. Eta hori da langile askoren iritzia.

**Aldi berean, publikazioak zuen lanpostuetan izan ditzaketen ondorioek kezka sortzen dizute?**

**M.E.** Saltsa handia dago, eta ondo pentsatu beharreko kontua da.

**A.E.** Noski kezka sortzen digula.



I. URKIZU



## IRAGARKI LABURRAK

### Lan bila

**Kamiol gidaria eta banatzailea.** Kamiol gidari-banatzailea, kamiolari edo biltegi lanetan aritzeko prest. C1 gidabaimena, CAP, takografo digitalaren txartela, karretillero titulua eta banaketan esperientzia. Autoa eta lanerako prestutasun osoa. Interesa dutenek, dei dezatela 618 25 49 60 telefonora.



Baina horrek ez du esan nahi biderik egokiena ez denik.

#### Posible ikusten duzue Asuncion publiko egitea?

**M.E.** Nik, momentuz, ez dut aukera handiegirik ikusten.

**A.E.** Zaila izango da, orain arte Osasun Sailak ez baitu bestelako jarrerarik azaldu; haiek dute giltza.

#### 2013ko epaiketan, bestelako kontuak ere plazaratu ziren; Jesus Gomez Montoyaren enpresasarea eta diru mugimenduak, kasu. Zergatik ez du auzi horrek erdigunea hartu?

**A.E.** Jakin nahiko nuke galdera horren erantzuna.

#### Klinikako jendeak informazio hori ezagutzen du?

**M.E.** Orokorrean baietz uste dut.

**A.E.** Zaila da datu zehatzak ezagutzea, baina informazio bat publiko egin zen. Osasun Sailak badaki, guk badakigu eta guztiek dakite.

#### Azken urteotan mugimendua piztu da, eskualdean, osasun publikoaren harira. Zerghegiago behar da presioa egiteko?

**A.E.** Erabiltzaileek jakin egin behar dute hemen gertatzen dena. Orain itxaron-zerrendak sortuko dira eta, horrekin, haserreak piztu. Langileok ditugun arazoei interesea piztu dezakete, baina krisi egoerak norbera ukitzen duenean, ordea, orduan pizten da jendearen interesa.

#### Erakunde publikoen inplikazioa eskertuko zenukete?

**A.E.** Bai. Tolosako Udalaren babesa azpimarragarria litzatekeela uste dut; alkatearen babesik ez dugu nabaritu.

**M.E.** Ordezkaritza politikoei alde batera utzi beharko lukete beren alderdia, kausa batzuen alde.

#### Zergertatuko da mobilizazio guztiak amaitutakoan?

**M.E.** Pentsatu nahi dugu eragina izango duela, baina, auskalo zer darabilten buruan. Gu hasi gara, eta zerbait lortu arte ez dugu etsiko; jendea gogotsu dago. Askokosta zaigu honaino heltzea.

**A.E.** Greba bat antolatzea ez da erraza, langile bakoitzak bere egoera pertsonala duelako.

#### Alde horretatik, pozik zaudete?

**M.E.** Ni harrituta nago, eta oso pozik. Bazirudien jendea lo zegoela orain arte, baina esnatu dira.

**A.E.** Krisi garaian, badiurdi lanpostu bat izate hutsagatik eskerarrak eman behar ditugula. Uste dut, jende asko horregatik egon dela isilik.

#### Usteduzue zuzendaritzak beldur hori elikatu izan duela?

**M.E.** Ez dakit berariaz egiten duten edo ez, baina beraiek badakite langile asko beldurrez egon direla, eta badakite zein botoi sakatu behar duten.



## LORE AMENABAR HIRUGARREN

**Abenduaren 7tik 10era ospatu da 25. Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa. Maila gorenean Gipuzkoako hiru soinu jotzaile aritu dira, tartean eskualdeko bi, Lore Amenabar irurarra eta Ane Urbizu tolosarra. Aurten sari nagusia bi akordeoilarik partekatu dute, Maria Zubimendi zumaiairrak eta Neza Torkar esloveniarrak. Hirugarren tokian sailkatu da Amenabar eta zazpigarren tokia bete du Urbizuk. Irurakoak 1.000 euroko saria jasoko du.** M. ALTUBE / GOIENA

## Gaur greba eguna izango da hezkuntza publikoan

Tolosaldeko Haurreskoletako hezitzaile gehienek egingo dute bat lanuztearekin, baita ikastetxe publikoetako langile gehienek ere

#### Erredakzioa

Tolosaldeko zenbait ikastetxe publikotako irakasleek gaur bertan erabakiko dute greba egin ala ez, baina jada bozketa egin duten zentroetan langileen gehiengoak bat egin du deialdiarekin. Atzo erabaki zuten eskualdeko haur eskoletako hezitzaileek protestara batu edo ez, eta %94,3k erabaki dute baiezkoa.

Eskualdeko zenbait ikastetxe-etako langileek ere atzo egin zuten bozketa. Besteak beste Abaltzisketako Txalburu, Amezketako Zumadi edota Alkizako eskola txiki etako irakasleek %100ak erabaki du grebarekin bat egitea.

Sindikatuak atzo emandako datuen arabera, Villabonan Erniobea institutuko langileen %90k erabaki du greba egitea eta Fleming ikastetxeeko 45 langile-etako 34 ez dira gaur lanera azalduko. Jarraipen baxuagoa izango du grebak Albizturgo eskolan (%87) edota Adunakoan (%58).

#### MOBILIZAZIOA DONOSTIAN

Gaur goizean zehar egingo dituzte gainerako ikastetxeetan bozketak, baina sindikatuaren gehiengoak egin duenez gaurko greba deialdia, jarraipen zabala espero dutela jakinarazi dute ordezkariek.

Unibertsitatez kanpoko hez-

kuntza publikoko lan baldintzak hobetzeko eskatuz mobilizazioa egingo dute elkarrekin ELA, LAB eta Steilas sindikatuak Donostian. 12:00etan abiatuko da manifestazioa Alderdi Ederretik Lan baldintzak hobeto, hezkuntza eraiki lelopean.

Protesta hauekin guztiekin hezkuntza publikora bideratzen den diru partida handitzea eta 6.000tik gora lanpostu egonkortzea eskatzen dute ikastetxe publikoetan aritzen diren beharginek. Bide batez, soldadak igotzea eta LOMCE eta Heziberri egitasmoak bertan behera utzi eta eredu propio baten alde egiteko eskatuko dute.

## Zirkuari buruzko ikastaroak emango dira Eguberrian

Asvinenean hiru egunetan gorputza eta zirku diziplina ezberdinak lantzeko aukera izango da, bakarka nahiz familian

#### Erredakzioa Aduna

Hiru saio ezberdin antolatu dituzte Asvinenean Eguberrietako jai egunetarako. Zirku familiarraren inguruko saioa egingo dute, adibidez, abenduaren 26an, 27an eta 28an, 10:30etik 12:00etara. Ordu eta erdiko hiru saio izango dira eta familiako hiru kideek (gutxienez heldu batek) parte hartu ahal izango du. 70 euro ordaindu beharko dira familiako.

Abenduaren 26, 27 eta 28an helduentzako zirku tekniken hastapen ikastaroa eskainiko da Asvinenea, arte eszenikoen laborategian. 12:00etatik 13:30era izango dira hiru saioak, bakoitza ordu eta erdikoa. Pertsonako 50 euro ordaindu beharko dira.

Haur eta gaztetxoentzako zirku ikastaro trinkoa eskainiko da urtarrilaren 2an, 3an eta 4an. 10:30etik 12:00etara 5 eta 10 urte bitartekoentzat izango da saioa eta haur bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu. 10 eta 16 urte bitartekoak, 12:00etatik 13:30era ariko dira. Kasu honetan, haur bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu.

Adunako Zubitxiki poligonon kokatuta dagoen Asvinenea arte eszenikoen laborategian izango dira ikastaroak eta apuntatu edo informazio gehiagorako honako telefono zenbaki hauek hots egin beharko da: 606 22 64 86 (Garazi) eta 606 08 49 87 (Koldo).

# Beti Alai

## jatetxea

**Garaian garaiko janariak**  
**Arraikietan berezia**

Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

### ATE IREKIAK | UNIBERTSITATE GRADUAK |

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**  
Goi Eskola Politeknikoa

Proiektuetan oinarritutako metodologiaren bidez, ezinezkoak ziruditen lanak gauzatu ditugu.

*Laura Ayza Valle*  
Bergara, Mekanikako Ingeniaritza, 4. maila

#### GOIERRI

|                                                        |                                                       |                                                         |
|--------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|
| <b>ABENDUAK 14</b><br>OSTEGUNA, 17:30<br>Areto Nagusia | <b>OTSAILAK 1</b><br>OSTEGUNA, 17:30<br>Areto Nagusia | <b>MARTXOAK 17</b><br>LARUNBATA, 10:30<br>Areto Nagusia |
|--------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|

Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 / bulegoa@goierrieskola.eus

902 110 436  
www.mondragon.edu/prest





Irudian, Leire Etxezarreta Zerkausiko parrilan txuletak erretzen. ENERITZ MAIZ / ANE URKOLA

# Itzali dira Zerkausiko parrilen sugarrak

XI. Txuleta Festa egin dute Zerkausian pasa den asteburuan; 900 bisitari inguru izan ditu eta 500 kilogramo haragi inguru erre dituzte.

**Ane Urkola** Tolosa

Haragi usaina zerion asteburuan Tolosako Zerkausiari. XI. Txuleta Festa egin dute bertan; Tolosako erretegiak beren eguneroko martxatik atera eta Zerkausia bihurtu dute beren erakusleiho.

Asteburu osoan eskaini dituzte otorduak. Imanol Zubelzu Txuleta Festaren antolatzailearen esanetan, 500 kilogramo haragi inguru prestatu dituzte, eta 900 pertsona inguru jaso ditu.

Txuleta festako protagonista bakarra ez da txuleta, eta argi geratu da beste behin Zizka Mizka gunean: haragiarekin egindako pintxo eta razio desberdinak eskaini dituzte bertan. Amerikar kutsua izan du guneak, eta Dixy

Band taldeak musika ere eskaini du zuzenean.

Mexikoko pintxo tipikoak ere prestatu dituzte bertako bi sukaldarik: Laura Tamayok eta Alejandro Schumann-ek. «Alex Shumman mexikarra da eta sukaldaritza ikastaro bat egiten ari da Euskal Herrian», azaldu du Zubelzuk. Ez du Tolosako Txuleta Festan egoteko aukera galdu, bistan denez.

## **BITTOR ARGUINZONIZ SUKALDARIARI OMENALDIA**

Ostiraleko protagonista, berriz, Bittor Arguinizoniz sukaldari bizkaitarra izan zen. Tolosako Udalak eta erretegiek omenaldi «xume» eta «herrikoia» egin zioten: «Arguinizoniz mundu mailako sei sukaldari onenetan dago.

Tolosarentzat eta tolosarrentzako harro egoteko moduko momentua izan zen», azpimarratu du Zubelzuk.

Tolosako Udalak eta erretegiek txapela bat eman zioten eta baita oroigarri bat ere. Ondoren, Joxean Goya harakinak haragi txuleta eta xolomo bat ekarri zituen aztertzeko: «Txuleta zati bakoitzak duen eragina, parrilan nola jokatzen duen, etab. azaldu zuen. Ondoren, dastaketa bat ere egin genuen», adierazi du Zubelzuk.

Igandean, bisita gidatu bat egin zuten Alde Zaharrean eta bazkaria ere egin zuten. Hurrengo urtera arte itzali zituzten Zerkausiko parriletako sugarrak, baina Tolosako erretegiek lanean jarraituko dute urte osoan.







## BUKATU DU IBILBIDEA

Gazteak Kalean ekimenak amaitutzat eman du ibilbidea. Eskertze Festa egin zuten larunbatean Ibarra; goizean hitzaldia egin zuten eta bazkarian 100 lagun inguru elkartu ziren. Arratsaldean, Tolosako Gazte Asanbladako kideek bertsoak kantatu zituzten eta kontzertuak izan zituzten gauean. A.U.

## ‘Handia’ filma Italian saritu dute

‘Handia’ filmak film onenaren saria lortu du Italiako ‘Noir In Festival’ jaialdian

### Erredakzioa Altzo

*Handiak* film onenaren saria jaso du Italiako Milan eta Como hirietan egin den *Noir In Festival* zine jaialdian. Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendutako pelikula *Pantera Beltza* garaikurra jaso du. Epaimahaikideak, besteak beste, honako hauek izan dira: Cédric Succivalli kritikaria, Pedro Usabiaga argazkilaria eta Lorenzo Richelmy eta Sara Serriaiocco aktoreak.

Bestalde, GEDA elkarteak (gaztelaniaz, Ikus-Entzunezko produktoreen eskubideak kude-

atzen dituen elkartea) antolatzen dituen Forque sarietan fikziozko film luze onenaren saria irabaz dezake. Zaragozan (Espainiako Estatua) egingo dute sari banaketa datorren urtarrilaren 13an. Era berean, elkarte horrek Zinean eta Hezkuntzan balioak aitortzea helburu duen Forque Saria ere banatuko du eta pelikula hautagaietako bat da.

Feroz sarietan ere lau izendapen jaso ditu: kartela, jatorrizko musika, zuzendaritza eta pelikula dramatiko onena. *Handiaren* ibilbide oparoak, beraz, jarraipena izan dezake datorren urtean.

# Eskualdetik Parisera, euskal presoen alde

Euskal presoek ezartzen zaizkien «salbuespenezko neurriak» ken ditzatela eskatu zuten Parisen; 11.000 herritar inguru bildu ziren.



Irudian, eskualdeko herritarrek Pariseko Eiffel dorrearen aurrean. ATARIA

### Erredakzioa

Bakearen eta presoek eskubideen aldeko manifestazioa izan zen larunbatean Parisen. Tolosaldeko herritar askok hartu zuten parte bertan, *Bakea Euskal Herrian: Orain presoak lelopean*. 11.000 lagun inguru bildu ziren.

Euskal Herrian bake «justu eta iraunkor» bat eratzeko gatazkaren ondorioak konpontzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuten, Frantziako eta Espainiako gobernuak urratsak egin ditzatela eskatuz.

Zanpantzarrek eta dultzaineroek ireki zuten manifestazioa. Mobilizazio buruan, Bakearen Artisanuak eta Ipar Euskal Herri- tik joandako kolore guztietako ordezkari politikoak zeuden. Beren atzetik Etxerat elkarteko senideak zeuden, eta, atzean, herritarrek, giroa berotzeko ardura zuen kontzertu kamioiaren au-

retetik. Bertan izan ziren Fermin Muguruza, eta Zebda taldeko Mouss eta Hakim, besteak beste.

Vauban plazan bukatu zen manifestazioa, eta han hartu zuen hitza Jean Rene Etxegarai Euskal Elkargoko lehendakariak. «Euskal Herriko bake prozesuak ezin du segitu Frantziako Gobernuaren engaiamendu formalik gabe», adierazi zuen, eta baieztatu zuen Euskal Elkargoko indar politiko guztiek «aho ba-

tez» babesten dituztela Parisen plazaratutako eskaerak.

Fabienne Servan Schreiber zinegileak, Joana Haranburu euskal presoek senideak, Michel Tubiana LDH Giza Eskubideen Ligako ohorezko presidentek eta Mixel Berhokoirigoin bakegileak hitz egin zuten: «Bakearen eraikitzea gatazkaren ondorioen tratatzea da», adierazi zuen. Urtarrilaren 13ko manifestaziorako deia eginez amaitu zen ekitaldia.





Tolosako Babarruna  
**GOZA ITZAZU**  
www.tolosakobabarruna.eus  
Tel.: 943 65 02 53





# KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

14. jardunaldia

Lauburu-Guadalajara 2-3

Sailkapena

- 1. Colo Colo 33p
- 2. Tafatrans 28p
- 3. Cons. Jose Luis Cobo 28p
- 4. Lauburu Ibarra 27p
- 16. Elorrioko 3p

Hurrengo jardunaldia

Colo Colo (1.)-Lauburu (4.)

HIRUGARREN MAILA

12. jardunaldia

Laskorain-Kukuyaga 2-1

Sailkapena

- 1. Alipendi 31p
- 3. Laskorain Ikastola 25p

Hurrengo jardunaldia

Santurtzi (6.)-Laskorain (3.)

Eskubaloia

1. NAZIONAL MAILA, C MULTZOA

13. jardunaldia

Anaitasuna-Tolosa CF 36-28

Sailkapena

- 1. Anaitasuna 23p
- 2. Zaragoza 23p
- 3. Ereintza 21p
- 4. Tolosa CF 19p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (4.)-Barakaldo (9.)

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

14. jardunaldia

Tolosa CF-Vasconia 2-1

Sailkapena

- 1. Bergara 32p
- 2. Ordizia 30p
- 3. Pasala 27p
- 6. Tolosa CF 24p

Hurrengo jardunaldia

Añorga (12.)-Tolosa CF (6.)

EUSKAL LIGA

16. jardunaldia

Tolosa CF-Hernani 2-1

Sailkapena

- 1. Tolosa CF 40p
- 2. Arratia 39p
- 3. Bizkerre 38p
- 16. Lakua 5p

Hurrengo jardunaldia

Goierri-Gorri (7.)-Tolosa CF (1.)

ERREGIONAL PREFERENTEA,

LEHEN MULTZOA

13. jardunaldia

Billabona-Mariño 3-0

Sailkapena

- 1. Deusto 28p
- 5. Billabona 22p

Hurrengo jardunaldia

Hernani (14.)-Billabona (5.)

BIGARREN MULTZOA

13. jardunaldia

Lagun Onak-Tolosa CF 2-3

Sailkapena

- 1. Aloña Mendi 30p
- 2. Tolosa CF 25p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (2.)-Eibar (3.)

Saskibaloia

LEHEN MAILA

9. jardunaldia

Sailkapena

- 1. San Cernin 8-1
- 2. Hernani 7-2
- 5. RedLine Mekanika TAKE 6-3

Hurrengo jardunaldia

RedLine TAKE (5.)-Arri BKL (11.)

# Alex Ibañez nagusiekin eta txapeldun etxean

Berrobiko frontenis txapelketaren finalak jokatu dira; binakakoan Altunak galdu egin du, Beotibarren



Olaizola II.a eta Altuna III.a Beotibarren, iragan ostiralean binakako txapelketako partidari. ANE URKOLA

Erredakzioa

Xistera Zirkuituaren barruan, IV. Elolaren Oroimenezko Txapelketaren finalak jokatu ziren ostiralean, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Alex Ibañez tolosarra izan zen txapelduna nagusien mailan, Anton Gandiagarekin batera. Antxon Alberdi eta Theo Laborde izan zituzten aurkariak, eta finala hiru set-etan erabaki zen: 6-15;15-12 eta 5-2. Alex Ibañez, Beotibar Zesta Punta Elkarteko pilotaria da. Gazteen mailan finaletik kanpo geratu zen, baina nagusietan parte hartzeko aukera eskaini zioten, eta bertan, finalerako txartela lortu zuen. Hain justu, gazteen mailan Baptiste Godwynek eta Maxime Berdoulay-k irabazi zuten Bixente Gonzalez eta Ander Leku-bereren aurka: 15-14 eta 15-11.

FRONTENIS FINALAK

Egun berean, Berrobin, Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketaren finalak jokatu ziren. Mutiletan, binaka, Xabi Zubiriak eta Aitor Erauskinen Odei Arregi eta Edu Lobatoren aurka jokatu zuten; Arregik eta Lobatok irabazi zuten finala 19-30eko emaitzarekin. Nesketan, binaka, Nuria Garate eta Edurne Argain nagusitu ziren 30-19, Enara Lasarte eta Aitziber Zabaletaren kontra.

Txapelketa mistoan Niko Artolak eta Nagore Lizardik 30-23 irabazi zieten Yeray Otaegiri eta Kristina Urbietari.

Banaka, Odei Arregik Ugaitz

Renobalesen aurka jokatu zuen finala, 30-27 irabaziz.

BINAKAKO TXAPELKETA

Hirugarren jardunaldian iritsi zaie lehen porrota Altuna III-Martijari. Ez zuten garaipena urruti izan, ordea, Tolosako Beotibarren, baina azken tantoetan, Olaizola II-Imazek aurea hartu zien, partida osoa atzetik joan ondoren. Hurrengo jardunaldia larunbatean jokatu dute Altuna III-Martijak, Ezkurdia-Zabaletaren aurka, Iruñeko Labriten.

BINAKAKO TXAPELKETA

3. jardunaldia

- Olaizola II-Imaz 22
- Altuna III-Martija 20

Abenduak 16, larunbata, Iruñea

Ezkurdia-Zabaleta  
Altuna III-Martija

Sailkapena

Final-laurdenak, ligaxka

- 1. Victor-Albisu 2-1
- 2. Altuna III-Martija 2-1
- 3. Olaizola II-Imaz 2-1



Goran, Elolaren Oroimenezkoan Ibañez. Beheran, Berrobiko txapelketa. ATARIA

## GABONETAKO PREZIO BEREZIAK



2010eko podiuma: Sven Nys erdian, txapeldun; Kevin Pauwels bigarren, eta Niels Albert hirugarren. IÑIGO TERRADILLOS

# Egutegi arazoak medio, Asteasu ziklo-kros probarik gabe

XIX. edizioa egitekoak ziren joan den asteko zubian, baina bertan behera uztea erabaki dute asteasuarrek; Joxe Ramon Aiertzak zergatiak zehaztu ditu

## Asier Imaz Asteasu

Azken 18 urteetan, abenduko zubi luzean, Asteasun ziklo-kros lasterketa antolatu dute. Aurten, ordea, ez da probarik egon. XIX. edizioa ez antolatzea erabaki zuen antolakuntzak. Joxe Ramon Aiertzak erabaki horren zergatiak azaldu dizkio TOLOSALDEKO ATARIA-ri: «Arrazoi desberdinengatik hartu genuen erabaki hori. Iaz, Euskal Challenge jarri genuen martxan Igorrerekin eta Zuiarekin batera. Gure ustez Es-

painiako federazioari ez zitzaion gustatu hori, eta aurten Asteasuko probaren egun berean edo bezperan, Espainiako Koparako baliagarria den froga antolatu zuen Katalunian, nazio arteko proba ere bazena. Txirrindulariak kopa korritzera beharturik daudenez, hona inor ez zela etorriko ikusi genuen». Proba bertan behera uzteko arrazoi handiena hori izan dela dio Aiertzak, nahiz eta ekonomikoki zailtasunak izango zituzten: «Baina horiei buelta emateko gai izango gi-

nen. Euskal Challenge-an sartzean, Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza gehiago jasotzen da, bera ere proiektu horretan dagoelako. Ekonomikoki arazoak izango genituen, baina gainditzeko modukoak. Espainiako federazioaren jokaera txar horrek egin digu kalte, beti ere gure ustez».

Jokaera «txar» horren inguruko erabateko ziurtasunik ez dutela dio Aiertzak, baina orain arte egutegiari begiratu ez dute inoiz arazorik izan Asteasun: «18 urtez errespetatu da data, aurten

izan ezik. Susmoak, beraz, hortik tiratzen digu. Euskadiko Federazioaren bitartekaritzaz saiatu gara konpontzen, baina ez du emaitzarik eman. Guzti horregatik, aurten ez da Asteasun ziklo-krosik izan».

Hurrengo urtera begira, gauzak airean daudela dio asteasuarrek: «Ez dakigu zer egingo dugun. Urtea amaitu ondoren jendeak zer esaten duen ikusi eta aztertuko dugu. Proba ez egiteak herrian hutsunea sortu du, jende asko etortzen zelako ziklo-krosa

## ASTEASUKO ZIKLO-KROS LASTERKETA

1999. urtean egin zuten lehen edizioa. David Seco busturiarra izan zen irabazlea. Proba xume bat egin hasi eta nazioarteko mailara iritsi ziren asteasuarrek. Bost munduko txapeldun lasterketa berean izatea lortu zuten, eta Sven Nys handiak bere izena birritan idatzi zuen Asteasuko podiumaren gorenean.

2011n arazo ekonomikoak etorri ziren, eta nazioarteko izaerari uko egin beharrean suertatu ziren antolatzaileak. Sustraietara itzuli ziren, eta estatu mailako lasterketa duin bat antolatuz jarraitu zuten. Iaz, Igorre eta Zuiarekin batera Euskal Challenge sortu zuten. Etor-kizuna ziurtaturik zegoela zirudienean, aurtengo arazoak etorri dira; batez ere, egutegi kontuak izan dira oztupo.

ikustera. Behin utzi eta berriz hastea asko kostatzen da, baina saiatu saiaturiko gara». Herritarren artean denetik entzun dutela dio Aiertzak. Batzuk hain justu hori esan omen die, behin utziz gero berriz hastea ez dela erraza izango. Besteak ados proba ez antolatzearekin, Espainiako Federazioak kontuan hartzeko agian ondo etorriko delako.

## ESPAINIAKO FEDERAZIOA

TOLOSALDEKO ATARIA Espainiako Txirrindularitza Federazioarekin jarri da harremanetan. Amadeo Olmos presidenteordeak hitz egiteko adeitasun guztia izan du. Elkarriketa xeble batean, valentziarrak federazioaren aldetik intentzio txarrik ez dela izan esan du. Kataluniako probaren nazioarteko izaera medio, UCI-ren egutegiaren barruan dagoela dio, eta bertako araudiari egin die aipamena.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita  
Goierriko eta  
Urola Kostako  
Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

### Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €  
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu





**ASTEARTEA, 2017KO ABENDUAK 12**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Naiara Roldan de Aranguiz  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletze  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoeta:** 687 410 022.  
anoetaldea@ataria.eus  
**Ibarra:** 687 410 118. ibaralde@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezera arreta zerbitzua:** **902 82 02 01**



www.ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



Altzoko pilotalekua postuz eta jendez bete zen. JOSU ARTUTXA

# Jakin-mina asetzeko garaia

Igandean bigarren Azoka Eguna ospatu zuten Altzon, eta eguraldi txarra zela eta, frontoian jarri behar izan zituzten 35 postuak; horietatik 12, herritarrenak

**Josu Artutxa** Altzo

Urtea amaitzeko denean eta Gabonek geroz eta protagonismo handiagoa hartzen dutenean, kultur astea antolatu ohi dute Altzon. Azken egunetan, izen handia hartu duen Durangoko Azokan bezala, altzotarrek ere, beraien etxeko produktu freskoenak jarri zituzten herritarren eskura. Denetik erosteko aukera izan zen 35 postu osatu zuten azokan. Azken astean aurreikusitako moduan, zerua laino gris bezala, eta beraz, frontoian ezarri behar izan dituzte salmentak guzberdinak.

Aurreko urteko arrakasta ikusi ondoren, aurten, postu berriak jarri zituzte, 35etik 12, herritarrenak zirelarik. Horietan guztietan, baratzeak elikagaiak edota eskulanak erosteko aukera izan da: babarrunak, gaztak, barazkiak, fruituak, arrautzak, opilak,



Estilo askotako postuak izan ziren. J. ARTUTXA

odolkiak... Pintxoak eta taloak jan nahiz zintzurra sagardoz edo ardoz bustitzeko aukera ere izan zen beste postu batzuetan. Eguerdia heltzearekin batera, geroz eta jende gehiago hurbildu zen Altzora. Arrakasta handia izan du aurten ere Azokak, eta frontoia txiki geratu zen.

Datozen egunetan ere, ekitaldi andana ospatuko dira herrian, Olentzerotan Jakin Minez kultur astearren barruan. Gabonak ger-

turatu ahala, musikaz, politikaz edota hezkuntzaz mintzatu eta gozatu ahal izango dute bertaritzen diren guztiek. Abenduaren 16an, 20:00etan ospatuko den talo jatearekin amaituko da kultur astea. Hala ere, Olentzerori ongiatorria egin aurretik, abenduaren 21ean, San Tomas egunarekin batera, Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua entzuteko aukera izango da, 18:30ean, Batzarremuñon.

## ASTEARTEA 12

### AGENDA

#### Deialdiak

**Amasa-Villabona.** Santtio zine klubean, *Se armó el Belén* filma eskainiko dute, Gurea antzokian. Doan.

**Amasa-Villabona.** Seve Iglesiasen erakusketa dago Gurea antzokiko aretoan. Paisaia, erretratuak eta pintura abstraktua: 18:00etatik 20:30era.

**Anoeta.** Dantza sokako bilera, 18:30ean, udaletxean.

**Anoeta.** 2018ko frontoiko orduen erreserbak egiteko bilera izango da, 20:00etan, udaletxean.

**Altzo.** *Kataluniara* begiratasaldia: Estitxu Eizagirre (*Argia* astekariko zuzendaria) eta Martxelo Otamendi (*Berria* egunkari zuzendaria), Batzarremuñon. Katalunian bizi duten errealitate gordinaz jardungo dira eta prozesuak bizi izan dituen eta bizi dituen hari-muturrei tiratuz. Ondoren. Mokadutxoa.

**Ibarra.** Ibarrik Misio Taldeak antolatzen duen Merkatu Txikia 17:00etatik 20:00etara irekiko dute eta jasotzen duten dirua Ekuador, Honduras eta Indian abian dituzten proiektuetara bideratuko dute.

**Tolosa.** Aralarko Adiskideak elkarteak antolatuta, Alex Txikonen *Everest*, *aparteko* erronkaizeneko film luzea eskainiko da, Leidor antzokian. Sarrera: 5 euro.

### 28 KANALA

**12:30.** Sexkulari.

**13:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.

**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.

**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.

**22:00.** Adi! Iskanbila. Zesuma.  
**22:30.** Hurbiletik. Iñaki Perurena.  
**23:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.

### ATARIA IRRATIA

**09:00-11:00. Pasahitza.** Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldiaren iragarpena, Iñigo Asensio *Kale Kantotik*, Jon Ander Galarragaren eskutik *Ekokultura*, eta teknologiaren tarte Tolosaldeko Lanbide Heziketako ikasleen eskutik.  
**11:00-12:00. Hamaiketako.** Villabona-Aiztondo eta Anoetaldeko albisteak Jon Mirandaren eskutik.  
**12:00-13:00. Entzuteko Jaioak.**  
**16:00. Zebrabidea.**  
**18:00. Eguneko saioen onena.**  
**20:00. Kokondo.** Oskar Tenarekin.

### FARMAZIAK

#### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** Mujika, E. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.  
**Gauekoa.** Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

### EGURALDIA

GAUR



9° / 5°

BIHAR



10° / 4°

# ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...

**Argazkia**  
bi egun lehenago  
ekarri mesedez